



BEGOÑA GARMENDIA VAZQUEZ, Tolosako Udaleko idazkaria.

NEUK ZIURTATUA:

Udalbatzak, bi mila eta hogeita biko maiatzaren bostean, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

3. FINANTZA ERAKUNDEETAKO ZERBITZUEI BURUZKO MOZIOAK.

Moziok honela dio:

«Finantza-erakundetako zerbitzuaren inguruko mozioa

1. Tolosako Udalak adierazi du herritar guztiak izan behar dutela finantza-zerbitzuetarako sarbidea, eta ezin dela egon irisgarritasuna eta aurrez aurreko arreta zailtzen edo eragozten duen arrazoirik, arreta berezia jarriz adinekoei eta zailtasun bereziak izan ditzaketenei.
2. Tolosako Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio finantza-erakundeekin hitz egin dezala, herritarrak oro har finantzen arloaren barnean sartzeko direla bermatzeko neurri berriak abian jartzeko, arreta berezia jarriz adinekoei eta zailtasun bereziak izan ditzaketenen pertsonen kolektiboari.
3. Tolosako Udalak finantza-erakundeei eskatzen die, elkarrizketa eta azterketa prozesu honetan, finantza-erakunde horiek konpromiso hauek har ditzaten:
 - Kolektibo horien (hau da, adinekoei eta zailtasun bereziak izan ditzaketenen) premia bereziak kontuan hartzea, eta aipatutako kolektiboek administrazio publiko honetan egiten dituzten izapideetan izan ditzaketenen arazoak aztertzea, eta kontuan izan dituzten premia bereziak zerbitzuak ematerakoan.
 - Herritarrak oro har finantzen alorrean barnean sartzeko direla bermatzeko neurri berriak abian jartzea, arreta berezia jarriz adinekoei eta zailtasun bereziak izan ditzaketenen pertsonen kolektiboari, eta bereziki ondokoei erreparatuz:
 - Kolektibo horri arreta hurbila eta azkarra ematea, kolektibo horri arreta ematea lehenetsiz, arreta pertsonalizatuagoa emanez, eta telefono bidezko arreta ere indartuz.
 - Kutxaren ordutegia zabaltzea, bezeroen kontu korranteetan diru-sarrerak edo diru-ateratzeak egiteko ordu-murrizketak edo zenbatekoak saihesteko. Zerbitzu horiek oinarrizko kutxa-zerbitzuaren barruan daude, eta zerbitzu hori ematea ez du esan nahi komisioak kobratu behar direnik, Espainiako Bankuaren jardunbide egokien irizpideari jarraikiz; izan ere, irizpide horren arabera, erakundeek bezeroen eskura jarri behar dute, gutxienez, doako bitarteko bat, irisgarria eta segurua, beren kontutik eskudirua atera ahal izateko, kontuan hartuta kolektibo bakoitzaren inguruabar bereziak.
 - Kutxazain automatikoak dauden aztertu eta horiek bermatzea biztanle kopuruari erreparatuta, eta bulegorik ez dagoenean, bankuek eraikin publiko eta irisgarrietan jarri eta artatu ditzatela.



- Aztertzea, Eusko Jaurlaritzarekin eta Finantzen Euskal Institutuarekin batera, udalerrri horietan eta banku-bulegorik ez dagoen landa-eremuetan, kutxazain automatikoak jartzeko laguntza eta finantzaketa neurriak.
- Banku-bulegorik eta kutxazain automatikorik ez dagoen eremuetan, eskudirua sartu edo ateratzeko ohiko banku-zerbitzuak ematen dituzten autobusen edo bulego mugikorren maiztasun erregular eta egonkorra bermatzea.
- Kolektibo horrentzat bereziki eskaintzen dituzten zerbitzuak edo produktuak lortzeko sistema digitalak edo makinak erabili behar izatea gutxitu, eta, horretarako, gaitasun digitalak eskuratzeko kanpaina bat bizkortzea eta bultzatzea, behar diren ezagutzak eta tresnak ez izateagatik oinarritzko zerbitzuak eskuratu ezin dituzten pertsonen bazterkeria hori jasan ez dezaten, eta banku lagunkoia lortzeko prestakuntza-ekintzak indartzea.
- 2021eko uztailaren 21ean sinatutako bankaren konpromiso sozial eta jasangarria indartzeko protokolo estrategikoan lanean jarraitzea, finantza-inklusioa eta digitalizazioa sustatzeko.

4. Era berean, Tolosako Udalak Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen die beren eskumeneko zerbitzu guztietan aurrez aurreko arreta emateko, beharra duten pertsonen, bereziki kolektibo honetako pertsonen, beren eskaeren kudeaketan sortzen zaizkien arazoei erantzuna eman ahal izateko».

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Olatz Peon Ormazabal, Begoña Tolosa Mendia, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Egoitz Sorozabal Iturain, Xabier Balerdi Tolosa, Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Abstentzioa: Andu Martinez de Rituerto Arregui, Kristina Pelaez Errazkin, Aitana Amondarain Esquisabel, Aitzol Garcia Azurmendi, Estitxu Kortejarena Ugarte, Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal eta Xabier Martinez Quinquilla

Beraz, Udalbatzak gehiengoz onartu du EAJ-PNV eta PSE-EE taldeak finantza-erakundetako zerbitzuaren inguruan aurkeztutako mozioa.

Hala jasota gera dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egiten dut, Antolakuntzako zinegotzi delegatuaren onespenezekin, Tolosan, sinadura agertzen den datan

O.e.
**ANTOLAKUNTZAKO
ZINEGOTZI DELEGATUA**

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2022IPLE0005-Finantza erakunde zerbitzuak-mozioa/Finantza erakunde